



**Arartekoaren 4/2011 gomendio orokorra, urriaren 10ekoa.**  
**Osasun arloko datuak lagatzea, adingabeak babesteko arloko herri-administrazio arduradunek hala eskatuta.**

## **I. Sarrera**

**I.1.** Antzeman ahal izan dugunez, foru aldundiek familia babeserako burutzen duten jardueraren esparruan koka ditzakegun hainbat kexa izapidetzean datuak lagatzen dira.

Lagapen horren ezaugarriak aztertzeke ofiziozko espediente bat hastera bideratu gintuen egoera horietariko batek foru aldundi baten familia orientatzeko plan batekin lotura zuen. Plan horrek osasun arloko datu pertsonaletara sartzeko baimena biltzen zuen. Bertan gurasoak laguntzeko hitz ematen du Hautzaro Zerbitzuari harremana mantentzeko aukera eskainiz eta psikiatrari edo artatzen zuen medikuari txostenak eskatuz. Xedapena orokorra da: *“Hautzaro Zerbitzuko teknikariari une oro laguntza eskaintzea: artatzen duen buruko osasuneko zentroko psikiatrararekin harremana mantentzeko aukera erraztuz, mediku txostena eskatu ahal izanez eta artatzen duen psikiatra edo medikuarekin harremana ahalbidetuz.”*

Lehen analisi baten ondoren, osasun arloko datuak eskaintzeko moduan zehaztaperen falta antzeman genuen gizarte zerbitzuak eskatzen diren helburuari dagokionez.

Gogoeta hori oinarritzat hartuta, foru aldundiari informazioa eskatu genion, eta erantzunean adierazi zigunaren arabera, adingabeen zaintzan eragina duten edo hura ekiditen duten funtsezko alorrak ez diren bitartean eta gurasoen aldetik lankidetzaz ez dagoen bitartean, ohiko praktika da adingabeen babeserako zerbitzuaren aldetik.

Foru erakundearen arabera, jarduera hori haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean oinarritzen da. Horren 21. artikulua zera dio: *“Osasun-zerbitzuek eta osasun arloko langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei jakinarazi behar dizkiete, edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari edo epaileari, hurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo arrisku-egoera ekar ditzaketan egitateak, eta horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak helarazi beharko dizkiete; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko.”*





Arrazoi horrekin batera, gure eskaerari egindako erantzunak hasieran hitzez hitz jaso dugun interesdunaren adostasunezko xedapen orokorra biltzen zuen *"Hautzaro Zerbitzuko teknikariari une oro laguntza eskaintzea..."*).

Hasieran genioenez, kasu honen datuak hasieran aztertu genituenean eskaerak duten helburuari dagokionez zehaztaper falta izan dezaketela pentsatu genuen. Hori dela-eta, egokitzat jo genuen espediente honi hasiera ematea eta Osakidetzari informazioa eskatzea osasun zerbitzuen jokaeraren inguruan aipatutako legezko xedapen hori oinarritzat hartuta gizarte zerbitzuek datuen lagapena eskatzen dutenean.

Bildu dugun informazioaren arabera egiaztatu ahal izan dugunaren arabera, foru aldundiaren irizpidearekin bat eginez, Osakidetzak ere uste du haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak datuak lagatzeko aukera eskaintzen duela interesdunaren baimenik gabe.

**1.2.** Titularraren baimenik ez dagoenean, printzipioz baimenik ez duenak legezko gaikuntza behar du datu pertsonaletara sartzeko: hala ezartzen du Datu Pertsonalen Babesa arautzen duen abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 11.2. artikulua, izan ere, horren arabera, baimena ez da behar izango lagapena lege batek baimendu badu. *"2. Aurreko idatz-zatian ezarritako adostasuna ez da beharrezkoa izango: a) Legeak baimentzan duenean lagapena."*

Hori bai, beharbada, gaikuntza hori egotea ez da nahikoa izango. Datuen kalitatearen printzipioa kontuan hartzea beharrezkoa da; horren arabera, datuak egokiak eta bidezkoak izango dira eta ez dira gehiegizkoak izango eremuari eta helburu diren xede zehatz, argi eta legitimoei dagokienez. *1. Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean, datu horiek zein esparrutan eta zein xederekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedeak zehatzak, argiak eta legitimoak izan beharko dira.*

Gauzak horrela, lagapen horiek garatutako funtzioen ikuspuntutik justifika daitezke eta legezko oinarria izan dezakete.

Hala eta guztiz ere, lagapen horiek behar bezalako bermerik gabe burutzen ari zirela pentsatzeko datuak antzeman ditugu. Berme horiek egon daitezken, ez da nahikoa datuen lagapena babesten duen legezko xedapen bat izatearekin, egoera bakoitza behar bezala justifikatuta egon behar da datuen babesak eskatzen duen alor guztietan.

Hori dela-eta, hasieran aipatu ditugun aurrekariak aztertu ondoren, egokia da honako oharbideak egitea osasun arloko datuen lagapenen inguruan.





## II. Gogoetak

### II.1. Legezko gaikuntza

Dakizuen moduan, osasun arloko datuak bereziki babesten dira (Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 7. artikulua) eta horregatik jakin izan da lagapenak behar bezalako legezko gaikuntza duela aintzat hartzeko, arauak osasunari berariaz loturiko datuen inguruan egiten duela adierazi behar du.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen 7.3. artikulua erregimen berezia ezartzen du osasun arloko datuentzat eta, horren arabera, datuon tratamendua edo jakinarazpena eragindakoa baimenik gabe burutu ahalko da lege batek hala ezartzen bada. Hala bada, gaikuntza hori interes orokorreko arrazoien izatean oinarritu beharko da.

Modu orokorrago batean Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 219/2008 Txostenak dioen moduan *“la aplicación del artículo 7.3 de la Ley Orgánica de Protección de Datos implica, por mor del principio de especialidad, la imposible aplicación a los datos referidos en el mismo de cualquiera de las causas legitimadoras del tratamiento previstas en el artículo 11.2 de la Ley Orgánica, quedando limitados los supuestos habilitantes del tratamiento y cesión de estos datos a los establecidos en norma especial o a aquellos en los que la norma general se refiere expresamente a tales datos.”*

Otsailaren 18ko 3/2005 Legean idatzitakoaren arabera, hasieran hitzez hitz helarazi dugun 21. artikulua osasun arloko datuak berariaz aipatzen dituela, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen 11.2. artikulua horretan xedatutako terminoetan legezko gaikuntza baten aurrean gaudela esan dezakegu.

### II.2. Kalitatea

Legezko gaikuntza abiapuntua da, baina ez da nahikoa baimenik gabeko edozein lagapen justifikatzeko, betiere azalpen bat eskatuko baitu gaikuntzaren helburuaren inguruan.

Zentzu horretan, osasun arloko datuei berariaz dagokien gaikuntza bat dagoenean, kontuan hartu behar dugu lagapen hartzaile gisa datu horiek eskatzen dituenaren zehaztaperi lana eskatuko duen gaikuntza dela. Baita lagatzailearen aldetik ere, legean ezarritako helburua –adingabearen babesa- betetzeko beharrezkotzat har daitezkeen datuen babesaren arduradun gisa.

Foru aldundiaren erantzunean, 3/2005 Legean oinarritutako sarbidearen azalpenarekin batera, datuen titularraren konpromisoa agertzen zen. Horren arabera, titularrak laguntza eskainiko zuen artatzen zuen buruko osasuneko zentzuko psikiatrarekin harremana mantentzeko aukera erraztuz, mediku txostenak



eskatu ahal izanez eta artatzen zuen psikiatra edo medikuarekin harremana ahalbidetuz.

Printzipioz, baimenik gabeko sarbiderako legezko gaikuntza dagoela adierazten bada, titularraren konpromiso hori ez zen berezko baimena izango, gaikuntza horrek ez beharrezko bihurtuko bailuke.

Hala eta guztiz ere, konpromiso hori interesdunaren datu pertsonaletara sartzeko justifikazioaren zati gisa bilduta dagoela eta bere konpromisoa horren modu orokorrean adierazita dagoela ikustean titularraren osasun arloko datuetarako sarbide orokor edo bereizi gabeko praktika baten aurrean ez ote gauden pentsatzen dugu. Horrela balitz lagapen irregularra izango litzateke.

Osasun zerbitzuak adingabearen babeserako esku-hartze eraginkorrean lagungarri diren datuak lagatzen dituenean (3/2005 Legeak 21. artikuluan xedatutako helburua), kalitatearen printzipioari jarraiki egiten duela kontuan hartu behar dugu eta, horren arabera, egokiak eta bidezkoak izateaz gain, ez dira gehiegizkoak izango euren helburuaren arabera (Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Legearen 4. artikulua). Era berean, babesgabezia-egoera ezagutzen denean eta tutoretza foru aldundiak burutzen duenean, sarbidea ezin da mugagabea izan eta dagozkion datuen ingurukoa izan beharko da.

Beraz, osasun zerbitzuei eskatzen zaizkien datu motari dagokionez zehaztaper lana egon beharko da eta, eskaini aurretik, zaintzaren arduradunak aldeztatik aurretiko zehaztasun epaiketa egin beharko du, sarbide irekirako aukera eman gabe. Hau da, datu egokien hautaketa lagapena baino aldeztatik egin behar da, eta ez da lagapen-hartzailea izan behar hautaketa hori egin behar duena behin datu guztiak dituela, egokiak eta egokiak ez direnak.

Zentzu horretan, desintoxikazio prozesu bat hasteko eta toxikoekiko mendekotasuna gainditzeko lantzeko konpromisoa hartzen bada, sarbidea tratamendu baten bilakaera eta mendekotasunaren gainditzea zein toxikomaniaren inguruko alta egoera biltzen duten txosten klinikoetara mugatuko litzateke.

Beraz, helburuaren arabera beharrezkoa den informazioa zehazten bada, datuak eskaini behar dituen arduradunak baloratu ahalko du zein informazio kliniko eskain dezakeen.

Arartekoaren ustez, datuen lagapenari dagokionez, adingabeen babesaren alorreko lankidetzak, haur eta nerabeak zaintzeko eta babesteko araudian bildutakoa, aipatu ditugun aldeztatik balorazio horiek kontuan hartuta burutu behar da.

Gogoeta horiekin, gizarte zerbitzuek burututako osasun arloko datu pertsonalen bilketa justifikatuta gera zitekeen bideratzen diren helburuaren arabera.





Osasun arloko datu pertsonalek duten babes bereziaren ikuspuntutik, arrazoizkoa dirudi gizarte zerbitzuei kasu bakoitzean eskatutako datuak zehatz ditzaten eskatzea, horien xedea justifikatuz biltzen diren helburuaren arabera.

Ondorio gisa, zera esan dezakegu gizarte zerbitzuei eskainitako osasun arloko datuen lagapenaren inguruan:

Datuen sarbidea edo lagapena baimentzeko arau orokorra interesdunaren alde aurretiko baimena bada ere, 3/2005 Legearen aurreikuspena, osasun arloko datuei buruz espresuki ari dela kontuan hartuta, lagapena baimenarekiko justifikatuta dagoela pentsa dezakegu, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 11.2) artikulua ezartzen duen salbuespenaren ondorioetarako.

Legezko gaikuntza hori gogoan izanda, ezin dugu ahaztu horrek berak ez duela bereizmenik gabeko sarbidea baimentzen, eta lagatzailea zein lagapen-hartzailea zorrozki beharrezkoak diren datuetara mugatu behar direla.

Jardun honetan bere funtzioa betetzeko datuak behar dituenaren eta zaintzaren hasierako arduraduna denaren arteko betebeharrean gaudela esan dezakegu. Gauzak horrela, lagapena baimentzen duen legezko xedapenik ez dagoenean, lagatzaileari eta ez lagapen-hartzaileari eskatuko zaio baimena lortzea; kasu honetan, lagatzaileak ahalik eta zehaztapenik handiena eskatu behar dio lagapen-hartzaileari eskatzen dituen datuen inguruan.

Eskaera hori datuen kalitatearen printzipioa aplikatzearen ondorio da; horren arabera, datuak egokiak eta bidezkoak izango dira eta ez dira gehiegizkoak izango eremuari eta helburu diren xede zehatz, argi eta legitimoei dagokienez.

Oharbide horiek kontuan hartuta, erakunde honek ontzat jo du honako gomendio hau ematea:

### **Gomendio orokorra**

1. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak ez du aukerarik ematen osasun arloko datuetan modu orokorrean sartzeko. Horrela balitz, bereizmenik gabeko sarbidea litzateke, datuen babesaren kontrakoa.
2. Lege batek osasun arloko datuen babeserako eskubidearen eta adingabearen babeserako eskubidearen arteko bateragarritasuna lortzen duenean, beharrezkoa da datu horiekiko sarbidea kalitate printzipioaren arabera burutu dadin, hau da, egokiak eta bidezkoak izan daitezen eta gehiegizkoak izan ez daitezen euren xedea kontuan hartuta.





Horretarako, lagatzaileak, behar ez bezala zehaztutako eskaerak ontzat eman gabe, lagapen-hartzailearen eskaera helburu duten amaierakoarekin bat egiten ote duen egiaztatu behar du.

Kasurako garrantzitsuak diren datuak soilik ateratzen dituen txosten berezi batek, garrantzitsuak ez diren eta pertsonen intimitatean eragina duten datuak lagatzea ekidin dezake.

